

# Bideo-zaintza bidezko datu pertsonalen tratamendua

## **Nor da nire datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?**

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. ("BBVA"), egoitza soziala San Nikolas plaza 4, 48005 Bilbo, España helbidean duena; helbide elektronikoa: [consultasgenerales@bbva.com](mailto:consultasgenerales@bbva.com)

## **Nor da BBVAren Datuak Babesteko Ordezkarria, eta nola jar daiteke harremanetan harekin?**

Datuak Babesteko Ordezkarria BBVAren datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea babesteaz arduratzen dena da, eta datuak babesteko araudia betetzeaz arduratzen da. BBVAren Datuak Babesteko Ordezkarriarekin harremanetan jarri ahal izango zara bbva.es web-orrian sartuta, Datu pertsonalak/DBO kontaktua atalean, edo posta honen helbide elektronikoa: [dpogrupobbva@bbva.com](mailto:dpogrupobbva@bbva.com)

## **Zer datu pertsonal tratatuko ditu, eta zertarako eta zergatik tratatu behar ditu BBVAk nire datu pertsonalak?**

BBVAren bulego batera sartzen bazara edota BBVAren kutxazainak erabiltzen badituzu, BBVAk jakinarazten dizu kamera finko eta mugikorren sistemak jarrita dituela, alarma-zentralei konektatuta, eta irudiak hartzeko eta grabatzeko gai direla. BBVAk zure irudia tratatu ahal izango du pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko, instalazio horietan egin daitezkeen delituzko egitateen aurrean. Era berean, BBVAk ahotsa tratatu ahal izango du babestutako higiezinan sortutako alarma-seinalea egiaztatzeko. BBVAk zure datu pertsonalak tratatzea ahalbidetzen duen legitimazioaren oinarria lege-betebehar baten betetzea da.

Era berean, jakinarazten dizugu bideozaintza-sistema horiek eguneko 24 orduetan daudela funtzionatzen. BBVAk irudiak hartu eta grabatu ahal izango ditu alarma-zentraletara konektatuta egongo diren sistemen bidez, jendaurreko ordutegitik kanpo, BBVAk une oro bermatu nahi baitu pertsonen segurtasuna, bai eta ondasunena eta instalazioena ere, instalazio horietan egin daitezkeen delitu-egitateen aurrean.

## **Zenbat denboraz gordeko dira nire datuak?**

BBVAk 15 egunez gordeko ditu zure datu pertsonalak, irudiak hartzen direnetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan, BBVAk suntsitu egingo ditu. Aurrekoa gorabehera, aipatutako epea luzeagoa izan daiteke datuak gorde behar direnean pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunaren aurkako egintzak egin direla egiaztatzeko, agintari judizialek edo Segurtasun Indar eta Kidego eskudunek xedatutakoaren arabera.

## **Nire datuak jakinarazi egingo dira?**

Inoiz ez hirugarrenei, legeak horretara behartzen gaituenean izan ezik. Aurrekoa gorabehera, jakinarazten dizugu pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunaren aurkako egintzak egiten direnean, irudiak agintaritzea eskudunaren edota Segurtasun Indar eta Kidegoen esku jar daitezkeela.

## **Zer eskubide ditut nire datu pertsonalen tratamenduaren arloan?**

Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, idazki baten bidez, [central.alarmas@bbva.com](mailto:central.alarmas@bbva.com) helbide elektronikora edo Att: Equipo de Seguridad, c/Azul nº4, 28050 Madrid posta-helbidera bidalita. Halaber, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian ([www.aepd.es](http://www.aepd.es)).